



Lehendakariak Petronor bisitatu du 100 MWeko elektrolizagailuaren obren hasierarekin bat eginez

- **Imanol Pradales Lehendakariak Petronor bisitatu du, konpainiaren proiektuak eta inbertsioak ezagutzeko**
- **Elektrolizagailuak 292 milioi euroko hasierako inbertsioa beharko du eta Petronorren egungo instalazioen barruan kokatuko da, hego-ekialdeko muturrean, Abanto Zierbenako udalerrian**
- **Proiektuak ingurumen nahiz administrazio arloetako baimen guztiak ditu, eta Europako enpresek garatuko dute osorik, bai ingeniartzan eta eraikuntzan, bai ekipoetan eta osagaietan**
- **Elektrolizagailuaren urteko gehieneko hidrogeno-ekoizpena 16.500 tonakoa ere izango da, eta horri esker, 167.500 tona CO₂ren isurketa saihestu ahal izango da, gas naturalarekin ekoiztutako hidrogenoa elektrizitate-iturri berriztagarriekin ekoiztutako hidrogenoarekin ordeztuz**
- **Proiektuak izaera estrategiko nabarmena du, eta Europako Batzordeak Interes Komuneko Proiektu Garrantzitsutzat aitortu du (IPCEI, ingelesezko siglen arabera), Batasunaren industria zein energia arloetako helburuei egindako ekarpenagatik**
- **Elektrolizagailu berri honi gaineratu behar zaizkie 2,5 MWeko eta 10 MWeko elektrolizagailuak eta beste proiektu eta inbertsio batzuk, Petronorrek trantsizio energetikoa, industria zein gizarte-ongizatearen alde hartu duen konpromisoaren seinale**

Abanto Zierbena, 2026ko urtarrilaren 26a. Imanol Pradales Lehendakariak Petronorrek Muskizen duen findegia bisitatu du gaur goizean, konpainiaren jarduera, honen posizionamendu estrategiko teknologiko eta industrial, eta 2050ean zero isurpen



garbi lortzeko egiten ari den ekimenak bertatik bertara ezagutzeko asmoz. Aurkeztutako proiektuen artean, beren-beregi nabarmendu da Bilboko Portuan eraikitzen ari den deskarbonizazio-huba, CO₂ isurpenetatik abiatuta eraikuntzan erabiltzeko moduko materialak sortuko dituen, eskala industrialean aplikatutako ekonomia zirkularraren adibide ukigarri bihurtuz. Era berean, konpainiaren 10 MWeko elektrolizagailuari erreparatu diote, izan ere, teknologia honekin, hidrogeno eta oxigeno berriztagarritz hornituko da instalazioaren barruan kokatuko den erregai sintetikoen lantegia.

Bisitan, findegiaren deskarbonizaziorako zein etorkizunerako funtsezko urratsa izango den 100 MWeko elektrolizagailua eraikitzeke aukeratutako orubea ikusteko aukera ere izan du lehendakariak.

292 milioi euroko hasierako inbertsioa tarteko, 100 MWeko elektrolizagailua 2029ko lehen sei hilekoan jarriko da martxan, eta horretarako, eraikuntza 2026ko lehen sei hilekoan hasiko da, dagokion lursaila egokituz. Proiektuak ingurumen eta eraikuntzako administrazio-izapideak bete ditu.

Ekimen estrategikoa da Petronorrentzat eta Euskadirentzat, Europako estrategiarekin lerrokatua, eta enpresak deskarbonizazioan aurrera egiteko hartu duen erabaki irmoa frogatzen du, izan ere, 100 MWeko elektrolizagailua martxan jartzen denean, 167.500 tona CO₂ren isurketa saihestu ahal izango da, gas naturalarekin ekoiztutako hidrogenoaren zati bat elektrizitate-iturri berriztagarriekin ekoiztutako hidrogenoarekin ordeztuz.

Petronorreko findegiaren hego-ekialdean kokatua, Abanto Zierbenako udalerrian, hidrogeno berriztagarria ekoizteko instalazio berriak teknologia alkalino presurizatuko elektrolizagailu bat du oinarri, Europako fabrikatzaile batek egindakoa, eta ur araztua eta elektrizitate berriztagarria erabiliko ditu hidrogenoa ekoizteko.

Ekotzitako hidrogenoa Hidrogenoaren Euskal Korridoreko industria-eragile guztien eskura jarriko da, eta hidrogenoduktuen azpiegiturarekin konektatuta egongo da. Petronorren findegia izango da ekoiztutako hidrogenoaren kontsumitzaile nagusia, banaketarako azpiegitura garatzen den bitartean.

Elektrizitatearen horniketa Red Eléctricak Abanton duen garraio-sareko azpiestaziotik egingo da, findegiaren eta azpiestazioaren arteko hurbiltasunaz baliatuta. Energia jatorri



berriztagarrikoa izango da, Europar Batasunaren indarrean dagoen arautegian jasotako eskakizunen arabera. Proiektuaren eskalari esker, hidrogeno berriztagarri lehiakorragoa lortu ahal izango da, Euskadiko hidrogeno-harana sendotuz eta bertako industriaren eraldaketa sustatuz, batez ere Petronorren findegiarena.

Proiektu hau Europar Batasunak (NextGenerationEU) finantzatu du Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren barruan.

Aintzatespena Europar

292 milioi euroko inbertsioa tarteko, 100 MWeko elektrolizagailuan erabilitako teknologia europarra izango da. Horren harira, Europako Batzordeak eta MITERDek 160 milioi euroko dirulaguntza eman diote IPCEI (Europako Interes Komunekeko Proiektu Garrantzitsua) mekanismoaren bidez, Batasunaren industria zein energia arloetako helburuei egindako ekarpenagatik.

“First Of A Kind” proiektu honekin, Petronor Europako eta Estatuak abangoardian kokatu da elektrolizagailuen garapenari dagokionez, eta haxe da Espainiako hidrogeno-proiekturik handienetakoa, eta hidrogenoa bultzatzeko Europa mailako programen barruan onartu diren lehenetarikoa.

Petronorri buruz

Petronor Bizkaiko industriaren eragile nagusia da, zuzeneko enplegua ematen die 940 pertsonari eta zeharkako enplegua beste 6.000 baino gehiagori. Azken bost urteetan, 1.200 milioi euro baino gehiago inbertitu eta 201 pertsona kontratatu ditu.

Bizkaiko lurraldeari egiten dion ekarpenaren isla da Bilboko Portuko trafikoa duen pisua, % 40koa alegia, eta harexeri dagokio foru-ogasunen guztizko diru-bilketaren % 5,5. Petronorrek hiru foru-ogasunen eta Eusko Jaurlaritzaren artean banatu den 936 milioi euroko ekarpena egin du.

www.petronor.com

VK Comunicación

Informazio gehiago:

Virginia Knörr Barandiaran

944 01 53 06 / 629 156 031

virginia@vkcomunicacion.com